


16. KULTURA, KOMUNIKAZIO ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

UPV/EHU Uda Ikastaroak 2025

BIZKAIA ARETOA - EHU

EKAINAK 16 - 17



Hiriaren hazkunde ereduaren
eraginak jasangarritasunean



KCD GGKE

IFK: G95550943

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

Kontaktua

Telefonoa: 94 602 46 68

E-mail: info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

Edizioa: KCD ONGD

Diseinua: Binari Comunicación

Testua: Andrea Ruiz Balzola

AURKIBIDEA

EGITARAU 2025	4
AURKEZPENA	7
INAUGURAZIO-HITZALDIA: "HIRIEN EGUNGO HAZKUNDE-EREDUA"	8
HITZALDIA: "HIRIGINTZA FEMINISTA. BIZI-ESPATIOEN ERABATEKO ERALDAKETAREN ALDE"	11
SOLASALDIA: "GENTRIFIKAZIOAREN ERAGINAK ETA ERRONKAK"	15
KASU PRAKTIKOA: "GANDIOLEKO (SENEGAL) ESPERIMENTAZIO-GUNE JASANGARRIA"	21
SOLASALDIA: "KULTURA, HIRITARGOA ETA JASANGARRITASUNA - HIRI BIZIGARRIEN ERRONKA"	22
PROIEKZIOA: "LA BANDA"	27
KASU PRAKTIKOA: "HABANAKO HIRIGUNE HISTORIKOARI APLIKATUTAKO KUDEAKETA- EREDUAREN GARAPEN INTEGRALAREN BOST ZUTABEAK. KULTURA ETA PARTE-HARTZEA ONDARE-HIRIAN"	28
KASU PRAKTIKOA: "SAINT LOUIS HIRIA ETA HAREN JASANGARRITASUNA, UNESCOREN ESTANDARREKIN BAT"	30
ONDORIOAK	23
PERFORMANCEA	33
HIZLARIAK	34



16. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

**“Hirien hazkunde ereduaren eraginak
jasangarritasunean”**

EHUko Uda Ikastaroak

Bilbo, 2025ko ekainaren 16 eta 17a

E G I T A R A U A 2 0 2 5

> EKAINAK 16

Topaketaren inaugurazioa erakundeekin

EHU · KCD GGKE · eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia · Bizkaiaiko Foru Aldundia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Bilboko Udala.

Inaugurazio-hitzaldia:

Enkarni Gómez (Euskadi)

Koldo Tellería (Euskadi)

Solasaldia: Hirigintza feminista

Sara Ortiz Escalante (Bartzelona)

Solasaldia: Gentrifikazioaren eraginak eta erronkak

Enkarni Gómez (Euskadi)

Jose Mansilla (Bartzelona)

Eritz Mendizabal (Bilbo)

Iraide Fernández (Euskal Herria)

Iker Eizagirre (Irun)

Kasu praktikoa: Gandioleko, Senegaleko, esperimentazio - gune jasangarria

Mamadou Dia (Senegal)

► EKAINAK 17

Solasaldia: Kultura, hiritargoa eta jasangarritasuna - hiri bizigarrien erronka

Pilar Pérez-Fuentes (Euskadi)

Mireia Ferri (Balentzia)

Sinecio Verdecia (Kuba)

Ariana Larrondo AKA Emilia (Abya Yala)

Nerea Díaz (Bilbo)

Proiektzioa: "La Banda"

Leo Jiménez eta Delia Márquez

Kasu praktikoa: Habanako Hirigune Historikoari aplikatutako kudeaketa-ereduaren garapen integralaren bost zutabeak. Kultura eta parte-hartzea ondare-hirian

Patricia Rodríguez (Kuba)

Katia Cárdenas (Kuba)

Kasu praktikoa: St Louis hiria eta haren jasangarritasuna UNESCOren estandarrekin bat

Fatou Diop (Senegal)

Abdoul Sow (Senegal)

Ondorioen txanda

Partaide guztiak.

Performancea: Kartoizko etxeak - hiri bizigarriak eraikitzen

Emaús Gizarte Fundazioa



EHUko errektoreordea, Bilboko Udaleko zinegotzia, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendaria eta KCD GGKEko zuzendaria, topaketaren inaugurazioan.





HIRIEN HAZKUNDE- EREDUAREN ONDORIOAK JASANGARRITASUNARI BEGIRA

*Norberak, zenbat eta gehiagotan galdu urruneko hirietako gela
ziztrin eta ezezagunetan, orduan eta hobeto ulertzen ditu hara
iristeko zeharkatu dituen beste hiriak.*

Italo Calvino, Hiri ikusezinak

Kultura Communication y Desarrollo GGKEak kulturari, komunikazioari eta garapenari buruzko 16. topaketa antolatu du, EHUren Uda Ikastaroen barruan, «Hirien hazkunde-ereduaren ondorioak jasangarritasunari begira» izenburupean. Topaketa Bilbon izan da, itsasadarraren bi ertzetan etengabe eraldatzen eta bere burua berrasmatzen ari den hiri batean, ekaineko eguzkipean igarotako bi egun atseginetan. Zerikusirik ez hiri izateari uzten ari zaizkion beste leku batzuetatik datozkigun albiste eta irudiekin. Rafah, Jabalia, Gaza, Jan Yunis eta Al-Zahra hiriez ari gara. Hiriotako biztanleak desagertzen ari dira, erailda edo indarrez erbesteratuta. Hiriotako auzoak eta kaleak, ospitaleak eta unibertsitateak, plazak eta eskolak desagertzen ari dira. Iraganean —askotan, nazioarteko lankidetzaren laguntzari esker— eraikitako azpiegiturak suntsitzen ari dira. Testuinguru lazgarri horretan, KCD GGKEko zuzendari Juan Carlos Vázquezek zera gogorarazi digu: «gure auzoak ondo egon daitezen, gure auzokideenek ere ondo egon behar dute».

AURKEZPENA

Gero eta pertsona gehiago bizi dira hirietan. Nazio Batuen arabera, gaur egun, munduko biztanleriaren % 57 bizi da hiriguneetan, eta 2050erako kopuru hori 6.600 milioi pertsonakoa izatea espero da.

Itxuraz geldiezina den hazkunde horren aurrean, galdera hauek egiten dizkiogu geure buruari: Zer hirigintza-eredu ari gara sustatzen? Lehenesten al da gizarte-, ingurumen- eta kultura-jasangarritasuna?

Erronka ugari ditugu. Gidatzen gaituen —oraingoz behintzat— sistema neoliberealean, ia dena bihurtzen da merkatu-ondasun. Hiri askotako erdiguneetan galtzen ari da eguneroko bizitza, eta kontsumoarekin eta turismoarekin ordezkatzten. Aldaketa horren ondorioz, auzo herrikoiak bisitarientzako gune bihurtzen dira, eta gune horiek parke tematikoen antza har dezakete. Gainera, milaka etxebizitza apartamentu turistiko bihurtzen dira. Ondorioz, prezioek gora egiten dute izugarri, espekulazioa sustatzen da eta garestitu egiten dira etxebizitzak, tokiko merkataritza-guneak eta kultura-guneak.

Eredu horrek bereziki eragiten die gazteei, horietako askok lan prekarioak baitutuzte, bai eta migratzaileei ere, kasu askotan Europako hirietako lan- eta demografia-hutsuneak betetzera etorri eta marjinauak izaten baitira.

Gainezka egin duen hiri-hazkundearen aurrean, funtsezko galdera batean jarri nahi dugu arreta Kultura, Communication y Desarrollo elkartean: Zertarako eta zeinentzako eraikitzen dira hiriak? Elkarbizitzarako eremuak aldarrikatzen ditugu, eta, bereziki, etxebizitza, tokiko ekonomia eta kultura ondasun komunak direla defendatzen dugu, justizia sozialaren eta zaintza kolektiboaren bidez babestu beharrekoak.

KCD GGKEk Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Topaketa hau proposatzen du hausnarketa kritikorako gune gisa, 11. GJHarekin eta 2030 Agendarekin elkarriketan. Esperientziak trukatu ditugu Hegoalde Globalaren eta Iparraldearen artean.

Hitzaldi, mahai-inguru eta kasu praktikoen bidez —Gandioletik eta Saint Louise-tik (Senegaleetik), Habanatik eta Euskaditik— erantzun kolektiboak bilatuko ditugu, gure hiriak gune gizatiarragoak eta bizigarriagoak izan daitezen.

Hartu nahi duzu parte eztabaidan?

Ikasleak, profesionalak eta herritarrak gonbidatzen ditugu kulturarteko elkarriketara eraldatzaile horretan parte hartzera, elkarrekin birpentsa dezagun nola habitatu, nola bizi eta nola eraiki guztiona den hori.

Apustu sendoa ondasun komun globalaren alde.

Zatoz eta kontaguzu zer hiritan bizi nahi duzun!

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia





INAUGURAZIO-HITZALDIA: “HIRIEN EGUNGO HAZKUNDE-EREDUA”

Ez dago hiriari inposa dakioken logikarik; pertsonak sortzen dute hiria, eta pertsonen premietara —ez eraikinenetara— egokitu behar ditugu hirigintza-planak.

Jane Jacobs

Enkarni Gómez eta Koldo Tellería

EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko irakasleak

Enkarni Gómezek eta Koldo Telleriak atzera begirako ikuspegia proposatu digute. Eta ez bakarrik ikuspegi hori orainaldia ulertzeko beharrezkoa delako, baita gaur egun aipatu, aztertu eta jasaten ditugun prozesu batzuek iraganean izandako beste batzuekin antz handia dutelako ere.

Donostiaren kasua azaldu digute: hiri horrek XIX. mendearen amaieran erabaki zuen bere etorkizuna; alegia, merkataritza-hiria ala hiri turistikoa izan nahi zuen. Izan ere, bulebarraren aldekoen eta aurkakoen arteko tirabira gertatu zen garai hartan. Lehenengoez hiri tertziario eta turistikoa nahi zuten, non balio estetikoek nagusi izan behar zuten, bisitarientzako hiri eder eta atsegina lortzeko. Bigarrenek, berriz, merkataritza-hiria hobesten zuten, eta hiriaren hazkundea bultzatu nahi zuten trenbidearen eta merkataritzaren garapenaren bidez eta merkataritza-portu garrantzitsu baten bidez. Donostiako tren-geltokia eta portua trenbidez lotzea proposatzen zuten, eta salgai-biltegi handiak eraikitzea portuaren inguruan.

Azkenean, bulebarraren aldekoak nagusitu ziren eztabaida horretan. Eta garaipen horrek oso ondorio garrantzitsuak izan zituen aldameneko udalerrian: Pasaia merkataritza- eta industria-ikuspegiarako alternatiba bideragarri gisa eratu zen, eta Donostiako eta Gipuzkoako portu nagusia bihurtu zen. Pasaia badiaren eraldaketa horrek erabat aldarazi zituen ordura arte izandako lurralde-harremanak. Trenaren etorrera mugarri bat izan zen, eta komunikazio-elementu gisa ura zuen eredua eraldatu egin zuen. Makinaren logika nagusitu zen. Horrez gain, errepide nazionala sortu zen, eta horrek lurraldea zatitu, muga bat ezarri eta itsasoarekiko harremana zaildu zuen. **Eskala-aldaketa** bat izan zen.

Ondoren, etxebizitzak eraikitzen hasi ziren, joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera logika produktibo berriak eskatzen zuen eskulana osatuko zuten pertsona askoren beharrari erantzuteko. **Etxebizitzak eta horien eraikuntza** beranduago etortzen dira beti, **une historiko ba-**

koitzean erabiltzen diren logika ekonomiko eta produktiboen ondorioz.

Hori dela eta, ez dute zerikusirik zaintzarekin eta antzeko beste esparru batzuekin, horiek beste logika batzuei erantzuten baitiete. Gaur egun, logika horiei berei jarraitzen zaie industriak bertan behera utzitako eremuetan etxebizitzak eraikitzeko prozesuetan. Etxebizitza horietan hartzen dute bizileku Donostiatik kanporatutako pertsonek, turismoak hiriburua garestitu eta etxebizitza eskuratzea oztopatu egiten baitu, hiri-espazioa birmoldatzeko prozesu batean.

Lurralde jakin baten inguruko ibilbide historiko horren ostean, modernitatearen arrakalak aipatu ditu Enkarnik; hau da, ekologia, feminismoa eta kulturartekotasuna txertatuz paradigma eraldatzeko eta bestelako gobernantza-ereduaren alde lan egiteko aukera ematen duten zirrikituak. Koldok azpimarratu duenez, **partaidetzazko prozesuak** ibilbide horren erdigunean daude, eta abiapuntu hauek izan behar dituzte:

- Hiritarrak pluralak direla ulertzea. Aniztasuna oinarritzkoa da eredu berrien eraikuntzan.
- Bizitza erdigunean jartzea.
- Leku bakoitzaren identitatara egokitzea.
- Publikoa/pribatua binomioa haustea. Bestelako espazioak sortzea: trantsizio-espazioak.



Enkarni Gómez eta Koldo Telleria, inaugurazio-hitzaldian.





- Hirigintza feministaren alde egitea.
- Gauzak ondo egin diren lekuei erreparatzea.

Jardunaldien aurkezpenarekin eta —ezinbestean— Palestinako egoera-ekin lotuta, Enkarnik eta Koldok gogora ekarri digute nola erabiltzen den lurraldea eskubideak urratzeko. Horrela, lurraldearen beste dimentsio bat aintzat hartzea eraman gaituzte: lurraldea gerra-arma gisa. Palestinan logika horiek nola erabiltzen ari diren ulertarazteko, bi plataforma bisitatzea proposatu digute: *Conquer and Divide* eta *Cartography of Genocide*. Halaber, hiru erreferentzia hauek eman dizkigute: *Hollow Land: Israel's Architecture of Occupation*; *Hiri-gerra Palestinan: Okupazioaren arkitektura eta estrategia militarra*, eta *A través de los muros*. Hirurak ere Eyal Weizman arkitekto israeldarrarenak dira —Tel Aviv eta Londres artean bizi da Eyal Weizman—. Obra horietan, Weizmanek zorrotz aztertzen ditu Israel-ek paisaia eta ingurunea eraldatzeko erabiltzen dituen metodoak, menderatze- eta kontrol-tresnen bidez eraikiak. Era berean, argi eta garbi erakusten du okupazio kolonialeko proiektu konplexu eta beldurgarriaren azpian dagoen sistema politikoa.



Enkarni Gómez eta Koldo Tellería, inaugurazio-hitzaldian.

HITZALDIA: “HIRIGINTZA FEMINISTA. BIZI-ESPazioEN ERABATEKO ERALDAKETAREN ALDE”

Sara Ortiz

Col-lectiu Punt 6 kooperatibako bazkide sortzailea

Sara Ortizek zenbait proposamen, ekintza eta metodologia aurkeztu dizkigu, eredu patriarkal eta kolonialen arabera sortu eta mantendu den hirigintza hausteko. Hirigintza-mota horrek, gainera, **bulegoko hirigintza** izatea du ezaugarri: **ustezko objektibotasuna eta neutraltasuna** abiapuntu hartuta esku hartzen du eta proiektuak sortzen ditu, baina horren azpian gizon zuri, mendebaldar eta erosahalten handikoaren begirada dago. Adrienne Richen¹ hitzak aipatuz, honako hau gogorarazi digu: «objektibotasuna da gizarte patriarkaletan subjektibotasun maskulinoari ematen zaion izena». **Hirigintza kapitalista** eta, beraz, **patriarkal eta kolonial** hori zenbait premisaren arabera garatu da. Hona hemen:

- Dikotomia publiko/pribatua.
- «Gizon unibertsal estandarra» egotea.
- Mugarik gabeko hazkundea eta kapital-metaketa: indibidualismoa eta kontsumismoa.
- Natura-ingurunearekiko loturak haustea.
- Koloniala eta eurozentrikoa.
- Kapazitista.

Hortaz, hirigintza horrek sekulako lurralde-bidegabekeriak sortu ditu, eta gizarte indibidualista eta kontsumistak sustatu. Hauek dira **eredu horren paradigmak** —horietako asko gure auzo eta hirietan ikus ditzakegu gaur egun—:

- Funtzionalismoa
- Turistifikazioa
- Hirigintza prebentiboa
- Gentrifikazioa

1 Adrienne Rich (1929-2012) AEBko poeta, saiakera-idazle eta akademikoa izan zen, eta eragin handia izan zuen mugimendu feministan. Haren pentsamenduari buruz gehiago jakiteko, hau kontsulta daiteke: *Ensayos esenciales. Cultura política y el arte de la poesía*. Capitán Swing (2019).





Sara Ortiz, hirigintza-feministari buruzko hitzaldian.

- Azpiegitura handiak
- Aldiriak
- Hiri adimendunak

60ko hamarkadaz geroztik, hiriaren ikusmoldea zalantzan jartzen hasi zen han eta hemen; ondoren, 90eko hamarkadatik aurrera, **eguneroko bizitzako hirigintzaren** ideia eratuz joan zen, ekarpen asko eta askotarikoen bidez. Hauek dira ekarpen horien jatorriak, besteak beste: emakumezko hirigile eskandinaviarrak eta beren eguneroko bizimodurako azpiegiturak; emakumezko hirigile italiarrak eta beren denbora-politikak; hiri seguruetan arreta jartzen duten emakumezko hirigile kanadarrak eta latinoamerikarrak; Vienan sortutako etxebizitzari eta espazio publikoari buruzko irizpideak, eta hainbat gizatalde, hala nola Hiri Kolektiboa eta Dunak. Sarak garrantzi handikotzat jo du aurrekarien historia hori guztia ikusaraztea, zeren, hirigintza feministari dagokionez, etengabeko jokaera izan baita emakumezkoen ahotsak eta begiradak gutxiestea, infantilizazioa eta paternalizazioa.

Hirigintza feministak honako helburu hauek ditu:

- **Bizitza jartzea** hirigintzaren inguruko erabakien erdigunean, egungo hirigintza deshierarkizatzeko eta despatriarkalizatzeko.
- **Espazio eta hiri seguruak** finkatzea, indarkeria matxistarik gabeak eta arrazakeria, kapazitismoa, LGBTIfobia eta lodifobia direla-eta baztertutako beste gizatalde batzuen gaineko indarkeriarik gabeak.
- **Emakumeen eta, oro har, jaiotzean esleitutako generoaren arabera nola jokatu edo adierazi behar duten agintzen dieten gizarte-arau**

eta -aurreikuspenei aurre egiten dieten pertsonen eguneroko esperientziatik abiatuta lan egitea, **haien bizipenak eta ezagutzak aitor-tuz eta ikusaraziz ekintza eta parte-hartze komunitario feminista-ren bidez.**

Kontua da, azken batean, eguneroko bizitza erdigunean jartzea, hiri zain-tzaile eta segurua sortzeko. Eguneroko bizitzaren kontzeptuak egunez egun egin ohi ditugun jarduera guztiak hartzen ditu barne. Beraz, ezin da partekatutako espaziotik eta mugatutako espaziotik bereizi. Hiri zaintzai-leak zu zaintzen zaitu, aukera ematen dizu beste pertsona batzuk eta zeu-re burua zaintzeko, eta ingurunea ere zaintzen du.

Sarak partaidetzazko metodologia feminista eta, ezinbestean, komuni-tarioa proposatzen digu, ikusteko zer elementuk errazten duten emaku-meen eta baztertutako beste talde batzuen eguneroko bizitza, batetik, eta, bestetik, zer elementuk mugatzen dieten hirirako eskubidea. **Partaide-tzazko izaera komunitario horrek** auzo edo hirietako edozein esku-har-tzeren oinarrian egon behar du, espazio horien erabiltzaileek ezagutzen baitituzte ondoen ingurunea eta bertan gertatzen dena. Gainera, parte hartzeko prozesu horiek areagotu egiten dute kide izatearen sentimen-dua, eta erabakitzeko ahalmena ematen diete tradizionalki baztertuak izan diren pertsona eta gizataldeei.

Hortik abiatuta, bere lantaldearen proiektu batzuk ezagutzea proposatu digu Sarak, betiere ikuspegi feminista eta interseksional batekin eta par-taidetzazko metodologia komunitarioak erabiliz gauzatutakoak. Egindako proiektu, ikerketa eta esku-hartze ugarien ondorioz, gidak, planak eta liburuak sortu ditu. Haren web-orrialdean kontsulta daitezke, eta hiri-plangintzan inplikaturik dauden administrazio, erakunde eta eragileei ere zuzenduta daude, **politika horien diseinuan eragina izateko** asmoz.

Zaintza Sare Komunitarioa proiektuaren helburua da Kataluniako lurral-de osoan zaintza-sare komunitarioak sustatu, lagundu eta indartzea, baita zaintza-lanen ikuspegi kolektibo, feminista eta erantzunkidea txertatzea ere. Zaintza-lanak etxetik atera eta publiko eta komunitario bihurtzea da kontua.

Bartzelonan eta El Salvadorreko Arce hirian **Babesleku klimatikoak** de-ritzon proiektua garatu dute, etorkizunean zaintzarako babesleku klima-tikoak ezartzea ahalbidetuko duten espazio komunitarioak nola egokitu ikusteko, aldeztatik aurretik hirigintza feministako diagnostikoa egin eta gero.

Bartzelonako bizikleta bidezko mugikortasunaren azterketa ere egin dute, ikuspegi feminista batekin. Bizikleta bidezko mugikortasunean ageri den genero-arrakala ulertzeko sortu zen proiektu hori. Bizikleta bidezko mugikortasunaren ereduak eta zaintzekin duten lotura ulertzea zen hel-burua.





Nocturnas proiektuak, berriz, honako hau ikusarazi nahi zuen: hiri-plangintza, funtsean, eguneko plangintza dela, gaueko aisialdiari dagokionean izan ezik. Bartzelonako metropolialdean gauez lan egiten duten emakumeen eguneroko bizitza erabat ikusezin geratzen zen; beraz, hiri-diseinuak eta -plangintzak alde batera uzten zituzten gauez lan egiten duten emakume horiei dagozkien alderdiak. Proiektuan partaidetzazko ikerketa-ekintza feministaren metodologia erabili zuten Bartzelonako metropolialdean gauez lan egiten duten emakumeekin. Metodologia horren arabera, parte hartzen duten emakumeek erabakitzen dute nola aurkeztu nahi dituzten emaitzak eta nola ikusarazi nahi duten egindako lan kolektiboa. Prozesuaren ondoriozko txostenak hainbat jarduketa proposatu zituen, kolektiboki landutakoak eta AMB eskualdeko hiri-plangintzan, mugikortasun- eta garraio-sarean eta lan-eskubideetan inplikaturik dauden administrazio, erakunde eta eragileei zuzendutakoak, beren programa eta politiketan txerta zitzaten.

SOLASALDIA: “GENTRIFIKAZIOAREN ERAGINAK ETA ERRONKAK”



Dinamiza Enkarni Gómez - EHU

- **Jose Mansilla.** Universitat Autònoma de Barcelona (UAB) unibertsitateko hiri-antropologoa eta irakaslea
- **Eritz Mendizabal.** Soziologoa, eta Bihotzean (Alde Zaharreko Auzo Elkarte) eta SOS Alde Zaharra elkarteetako kidea
- **Iraide Fernández.** Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea
- **Iker Eizagirre.** Hiritik At Koop kooperatibako bazkide langilea

Jose Mansilla hiri-antropologoa eta unibertsitate-irakaslea kontatu digunez, joan den ekainean artikulua bat argitaratu zuen *The Times* egunkariak, honako izenburu honekin: «Agur Madril zaharrari: Espainiako hiriburuak ongi-etorria egiten die superaberrats globalei». Izan ere, gentrifikazioa beti langile-klase herritarrekin lotutako **prozesua** izan arren, badirudi hirietako klase aberatsagoei ere eragiten diela. «Aberatsek ere negar egiten dute, 70eko hamarkadako telenobela hark zioen bezala», dio Josek, ironiaz. Hala da, bai: hiriko eraldaketek tradizionalki aberatsak izan diren auzoetan bizi diren pertsona eta familiei eragiten die. Haien ingurunea ere aldatzen da, beste herrialde batzuetako pertsona izugarri aberatsak iristen direnean. Fenomeno hori aspaldian aipatzen zen Londres, New York eta halako hirietan. Orain, hemen ere gertatzen da. Izan



Jose Mansilla, Eritz Mendizabal, Iker Eizagirre, Iraide Fernández eta Enkarni Gómez, gentrifikazioari buruzko solasaldian.



ere, gentrifikazioa prozesu globala da, Loretta Lees² geografo eta hirigileak gogorarazten digunez.

Areago, Jose Mansillak ziurtzat eman du gentrifikazioa **martxan dagoen prozesu edo ekintza dela eta ez duela zertan amaierarik izan**. Termino hori Ruth Glass-ek erabili zuen lehen aldiz, 1964an, Londresko erdi-mailako klaseko biztanleek antzinako behe-mailako klaseko eremuetara egindako bizileku-aldaketa adierazteko. Britainiar soziologoak 60ko hamarkadan aztertu zuen prozesu hori, sasoi hartan gertatzen ari ziren aldaketa globalean testuinguruan: *gentry* deritzonak —lur-jabeak eta nekazaritza-burgesia tradizionala, *Downtown Abbey* izeneko telesaioak ezagun egin zituenak— hirira joan eta auzo jakin batzuetan bizi diren herritarrak lekuz aldatzera behartzen ditu. **Ordezkatze-dinamika** bat da eta hainbat hiritan gertatu da.

Hala, 70eko hamarkadan, hiri askotan jarri ziren martxan klaseak ordezkatzeko gentrifikazio-prozesuak. Hiri-paisaia eraldatuz joan zen, eta ez bakarrik etxebizitza-merkatuari dagokionez, baita espazio publikoaren erabilerari, merkataritza-paisaiaren homogeneizazioari, pribatizazioari, kontrol- eta garbiketa-araudiei, eta abarri dagokienez ere. Gero eta agerikoagoa da **hiria metaketa kapitalistaren dinamiken kate-maila bat dela eta hiriko produkzio-eremuak hiri osoa hartzen duela**. Bai Espainiako hiririk industrializatuenetan —hala nola Kataluniako eta Euskadiko hirietan— eta bai, geroago, turistikoenetan —Balear uhartekoetan, kasu—, auzokideok gara «estra» izaten hasi garenak. Hain zuzen, «ahalmen ekonomikorik ez duten edo hiriak xede duen klasekoak ez diren gizataldeak», Mansillaren hitzetan. Azkenean, prozesuak eragin handia du gizarte-harremanetan, eta, epe luzera, merkantilizatu egiten ditu. Hori gertatzen da turismoaren kasuan, adibidez: terrazak versus eserlekuak eztabaidaren logika ageri da.

Egoera larri samar horren aurrean, zer egin daiteke? Horixe galdetzen dio Josek bere buruari. «200 urteko kapitalismoak ekarri gaitu hona», esaten du, David Harvey geografo eta teoriko marxista gogoratuz. Hala ere, jarrera erreakzionarioetan erori beharrean —azken aldi honetan boladan dago hori, antza—, arazo horri dinamika eta prozesuen bidez aurre egitea proposatu du; adibidez, Sara Ortizek erakutsi zizkigun dinamika eta prozesuen bidez.

Esandakoaren harira, prozesu horiek askotariko gizataldeetan dituzten ondorioez galdetu dio bere buruari **Iraide Fernández** EHUKo soziologoak. Izan ere, gentrifikazio- eta turistifikazio-prozesuek ez dituzte ondorio

2 Ikusi: *Global Gentrifications: Uneven Development and Displacement*, Loretta Lees, Hyun Bang Shin eta Ernesto López-Morales (Editors), Policy Press, 2015.



Jose Mansilla, Eritz Mendizabal eta Iker Eizagirre, gentrifikazioari buruzko solasaldian.

berberak gizatalde guztietan. Eta, ohartarazi duenez, ondorio horiek aztertzeke **begirada interseksionala** behar dugu. Adibidez, pentsa dezagun errenta apaleko adinekoengan eta horiek jasaten ari diren kanporatze material eta sinbolikoan, Madrilgo Udalak Santa Ana plazako zuhaitz- eta eserleku-eremua kenduz egin dituen erreformen ondorioz. Etsaitasunezko hirigintza dei diezaiokegu jardunbide horri. Emakumeak, guraso bakaerreko familiak, gazteak eta, jakina, pertsona arrazializatuak dira gizatalde bereziki zaurgarrietako batzuk. Baina, zalantzarik gabe, badago lekualdatzeak (kanporatzeak) bereziki eragindako gizatalde bat: migratzaileena.

Lekualdatze hori hiru motatakoa izan daiteke:

1. **Sinbolikoa.** Begiradak, poliziaren presentzia, diskurtso ofiziala. Gogoan izan ditzagun kulturartekotzat jotzen diren auzoak; adibidez, Madrilgo Lavapiés. Bertan, auzo erakargarria, kulturartekoa eta berritzailea sustatzen duen politika aurkitzen dugu, baina aniztasunaren irudi idilikoa hausten duen oro baztertu egiten da (egoera irregularran dauden jatorri afrikarreko gizonak, kasu).
2. **Zuzena.** Hemen bizitegi-kontuetan sartzen gara, hala nola higiezinaren merkatuaren presioan; adibidez, alokairuen igoeraren eta etxebizitza turistikoaren hazkundearen bidez (Bilboko Ibaiondo barrutiaren kasuan, esaterako). Etxebizitza publikoa eskuratzeari dagokionez, higiezinaren arloko diskriminazioaz hitz egin dezakegu, oso migratzaile gutxi eskuratzeko baitituzte horrelako etxebizitzak eta oso garesti ateratzen baitzaizkie. Iraidek salatu duenez, ez gara bermatzen ari migratzaileek etxebizitza publikoa eskuratzeko duten eskubidea.
3. **Zeharkakoa.** Lekualdatzeko bide sotilagoak dira, baina besteak bezain ahaltsuak eta egiturazkoak.

Iker Eizagirre arkitekto eta antropologoak Hiritik At kooperatiban egiten dituzten jardueren berri eman digu. Hona hemen: auzo, herri eta hirien





antolamendua; tokiko garapena, lurraldeen hazkunde sozioekonomiko jasagarria helburu duten prozesuen bidez, eta, azkenik, aholkularitza estrategikoa, espazio fisikoari, ekonomiaren balio-kateari eta lurralde-eskala desberdinen artikulazioa sozialari lotutako alderdiak aztertuz, garatuz eta kudeatuz.

Ikerrek **partaidetzazko prozesuetan** jarri du arreta, metodo bat izateaz gain **herri-antolamenduarekiko kontzientzia hartzea** eragin baitezake. Immobilismora daraman panorama etsigarriaren aurrean, prozesu horiek sistema kapitalistaren alternatiba zehatz eta emantzipatzaileak izan daitezke³.

Usurbilgo (Gipuzkoa) auzo baterako egin duten planaren prozesua azaldu digu. Auzoan lehendik zegoen antolamendu-sarea abiapuntu hartuta, dibertsitate-maila handiko talde eragile bat sortu dute, eta talde horrek auzoaren beharrak zehatzu ditu: espazio publikoa, ekonomia, komunitatea, ekipamenduak eta abar. Ilde horretan azpimarratu duenez, garrantzi handikoa da partaidetzazko prozesuak kudeatzea, baina ez irekitzen eta ixten diren prozesu gisa, baizik eta lurraldean dagoeneko gauzatzen ari direnak elikatzen dituzten prozesu gisa. Hau da, **lurraldearen funtzionamendu-arauei egokitu behar zaie**.

Prozesu kolektibo horretatik —zeinak barnean hartzen baititu ikuspegi feminista eta hainbat jarduera (ibilbideak edo bisitak auzoan zehar, adibidez)—, plan bat sortzen da. Kasu horretan, Udalak finantzatu du plana, eta legitimitatea eman dio prozesuari.

Prozesu horren parte gisa, subjektu kolektibo bat sortzea nabarmendu du Ikerrek: auzo-elkarte bat, administrazioaren lana fiskalizatuko duena, gauzak egin daitezen, eta aldi berean beste aukera batzuetan pentsatzen eta lan egiten jarraituko duena. Talde hori ahaldunduz joango da prozesuan zehar, auzoko plaza publikoari buruz sortzen den eztabaida publikoan parte hartu ahal izateko. Taldeak elkarrizketan jardungo du Udalarekin, eta, azkenean, erreferenduma egingo da. Hortaz, beste prozesu gaitzaile bat irekiko da. Hori dela eta, **partaidetzazko prozesuak gizartea trebatzeko bideak dira**.

Partaidetzazko prozesuek, gainera, **lekuak sortzen laguntzen dute**, lekuak zentzu antropologikoan ulertuta; hau da, bertan bizi diren pertsonentzako espazio esanguratsuak. Marc Augé⁴ jarraituz, identitatea eta

3 Ikusi: *Construyendo utopías reales*, Erik Olin Wright, Akal, 2014.

4 Marc Augé (1935-2023) frantziar antropologoak «ezlekuaren» kontzeptua asmatu zuen, iragan-kortasun-, kontsumo- eta zirkulazio-lekuak adierazteko (aireportuak, supermerkatuak, autobiodeak, motelak eta abar).

harremanak gauzatzen diren leku historikoak dira horiek, ezlekuak ez bezala, azken horiek gizakia anonimoa den espazio aldagarriak baitira.

Azkenik, partaidetzazko prozesuen garrantzia azpimarratu du Ikerrek, auzokoen ahotsa Udalarekin lotzen laguntzen baitute. Zentzu horretan, **ko-sorkuntza bidez egiten diren lekuak ehuntzen laguntzen dute.**

Eritz Mendizabalek, Bilboko SOS Alde Zaharra elkarteko eta Bihotzean Zazpikaleetako auzo-elkarteko kideak, gogora ekarri dizkigu Donostiako alkate Eneko Goiak duela 3 urte Deustuko Komunikazio Graduko 4. mailako ikasleek egin zioten elkarriketa batean esandako hitz polemikoak: «Zure auzoan bertan zahartu nahi izatea fin samarra da». Eta hitz polemikoak izan ziren, hain zuzen ere, **administrazio publikoek zure auzoan bizitzeko duzun eskubidea nola ulertzen duten** adierazten dutelako. Eritzek hizpidera ekarri ditu Enkarnik bere hitzaldian esandakoa: desarrollismoaren garaian, etxeak eraiki ziren, baina ez zen kalerik eta plazarik eraiki. Gaur egun, ondorengo beste garai batean gaude, eta hau da administrazio publikoak neurri handi batean egiten ari direna: kaleak eta plazak edukiz hustu, turismoaren mesedetan.

Bilboko Zazpikaleetan turistifikazio-prozesu bat gauzatzen ari da aspalditxotik. Honetan datza, funtsean: eremua eraldatu egiten da turismoaren beharretara egokitzeko, gehienetan bertan bizi diren auzokoen kaltetan. Oroigarri-dendak ugaritzea, betiko negozioak eta saltokiak desagertzea, oinarritzko produktuen prezioak garestitzea, askotariko negozio frankiziatuak hedatzea, turistentzako tabernak eta dendak nagusitzea, kaleak jende-oldez betetzea... Ildo horretan, Zazpikaleetako karga turistikoaren ehunekoa % 46,8koa dela gogorarazi digu Eritzek. Izan ere, auzoak 7.000 bat biztanle ditu, baina turistentzako 3.350 ohe ditu, hotelak eta legezko zein legez kanpoko etxe turistikoak kontuan hartuta. Gure herrialdeko hainbat hiritan antzeko prozesuak gertatzen ari direnez, badakigu turis-



Jose Mansilla, Eritz Mendizabal, Iker Eizagirre, Iraide Fernández eta Enkarni Gómez, gentrifikazioari buruzko solasaldian.





tentzat soilik diren etxebizitzaren alokairuak zuzeneko eragina duela alokairuen prezioan.

Zer egin dezakegu auzokideok horren aurrean? Zer egin dezakegu eraso-sentsazio horren aurrean? Etengabeko eta eguneroko egonezin horren aurrean? Hona zer proposatzen digun Eritzek: auzo-mailako loturak ehuntzea, eta, hortik abiatuta, kontrabotere- eta defentsa-prozesuak sortzea. Ez da erraza; besteak beste, diskurtso hegemoniko bat dagoelako, zeinaren arabera turismoa ona eta onuragarria baita hiriarrentzat eta hiritarrentzat. Bada ideia errepikari bat, hain eta hemen hedatzen ari dena: turismoa iritsi aurretik, Zazpikaleak oso gaizki zeuden, narras eta suntsituta, eta turismoari esker suspertu da auzoa. Diskurtso tranpati eta sinplista horien aurrean, **ekintza kolektibora jotzea** da irtenbide bakarra, auzo-bizitza eta kaleko interakzio eta jarduerak defendatzeko.

Gauza bera ote dira gentrifikazio-prozesua eta turistifikazio-prozesua? Antzeko eragina dute? Galdera horiek zuzendu zaizkie hizlariari. «Ez dezagun ahaztu **sasiko kontzeptuak** direla —dio Josek—, definizio zehatzik ez duten kontzeptuak, testuinguru askotan eta askotarikoetan erabili direnak; hortaz, zehaztasuna galdu dute analisirako, eta elkarren aurkako diskurtso ideologikoei eusteko erabil daitezke». Gentrifikazioa diogunean, biztanleria lekualdatzeaz ari gara, eta turistifikazioa diogunean, berriz, bi-tartekari bakarra turismoa duten gizarte-harremanez ari gara. Hala ere, gentrifikazioa turismoaren ondorio bat izan daiteke, baldin eta auzo bateko auzokideak alde egiten hasten badira, turismoari lotutako dinamiken ondorioz. Kasu horretan, **«gentrifikazio turistikoaz»** ari gara.

Beste galdera batek gai hau ekarri du hizpidera: eremu oso gentrifikatu edo turistifikatuetakoa bizikidetzatza. «Egia da —erantzun du Iraidek— halako testuinguruetan tentsioa sortzen dela bizikidetzatza-harremanetan». Hala ere, hau ohartarazi digu: «Tentsio horiek ia inoiz ez dute zerikusirik izaten kultura-arazoekin, baizik eta prekaritatearekin, baliabide urriak eskuratzeko borrokarekin eta erakundearen babesgabeziarekin». **Tentsioa estrukturala da, ez kulturala.** Eta tentsio hori gorabehera, edo tentsio horren ondorioz hain zuzen ere, elkartasun-harremanak aurkituko ditugu beti.

Azken galdera zenbakien, ikerketen, planen eta programen mugei buruzkoa da, horiek metodologia kuantitatiboen bidez soilik egiten baitira, eta ez kualitatiboen bidez. Zentzu horretan, bi metodologiak baliagarriak eta osagarriak izango dira, jakina, eta bata edo bestea erabiltzea, neurri handi batean, geure buruari egiten diogun galderaren araberkia izango da. Dena dela, haxe gogorarazi digu Iraidek: «Administrazioaren hizkuntza zenbakiena da, eta gutxiago kostatuko zaigu hizkuntza horretan hitz egitea aldarazten saiatzea baino».

KASU PRAKTIKOA: “GANDIOLEKO (SENEGAL) ESPERIMENTAZIO-GUNE JASANGARRIA”

Mamadou Dia

Hahatay Son Risas de Gandiol elkartearen sortzailea

Mamadou Dia senegaldarra Hahatay Son Risas de Gandiol elkartearen sortzailea da, non *man na neek* (posible da, woloferaz) kontzeptua oinarri harturik lan egiten duten. Elkartearen helburua etengabeko ekintza da, eginez ikastea, ziurtatu ahal izateko pertsona guztiak duintasunez biziko direla eta beren bizitzaren protagonista eta beren garapenaren eta askatasunaren eragile izango direla. Hona zer proposatzen diguten Mamadouk eta Gandiolek: lasterka ibili beharrean, berriro ibiltzen hastea, oraina lantzeko prozesuak eta proiektuak abiaraztea, eta pertsonak bizi diren lurraldeko biztanle gisa beren burua aitortzen dutenean sortzen diren aukerak baliatzea. Hortaz, **jasangarritasuna eguneroko jardunbidea da**.

Eta horrek kontraste handia egiten du hirietan eta iparralde globalean jasangarritasuna ulertzeko eta lantzeko dugun moduarekin, horietan jasangarritasuna produktu bat baita. «Hiri handietan —dio Mamadouk— zerbait aldatzeko edo eraldatzeko saio oro salgai bihurtzen da». Bestalde, erraza dirudi jasangarritasunaz hitz egitea iparralde globaleko hirietan, beren burua ekologiko, garbi, jasangarritzat duten hirietan... Baina beren burua engainatzen ari dira. Izan ere, hiriok jasangarri izan ahal izatea **truke bidegabe historiko** baten mende eta hegoalde globaleko hiri eta herrietako eskulanaz eta baliabideez jabetzearen mende dago, neurri handi batean. Adibide gisa, hortxe ditugu Europatik hegoalde globaleko herrialdeetara egiten diren arropa-zirkuituak edo tonaka bidaltzen diren hondakinen esportazioa.

Mamadouren historia pertsonalak zerikusia du hegoaldearen eta iparraldearen arteko truke bidegabe horrekin. Izan ere, «itzulitako migratzailea» da, aldaketak eragiteko eta ahalbidetzeko asmoz lankidetzaren alde egiten duena. Baina berak kontatzen digu ez duela bere burua «itzulitako migratzailetzat» hartzen, baizik eta «betiko migratzailetzat», egiten duzun horretan sinesten dutenekin aliantzak egin nahian eta zailtasun ugariak nola saihestu ikasi nahian dabilen pertsonatzat.



Mamadou Dia, Gandioli (Senegal) buruzko hitzaldian.





SOLASALDIA: “KULTURA, HIRITARGOA ETA JASANGARRITASUNA – HIRI BIZIGARRIEN ERRONKA”

*Barrutik ateratzen zaitu
azala urratu gabe.*

Poesia salbabidea izan daiteke.

Sinecio Verdecia

*Nire jende beltzaren aurpegi ederrei
melaza-loreen usaina darie,
eta ondotik igarotzen zaizkidanean
nire belztasunaz pozten zait bihotza.*

Tite Curet Alonso

Dinamizatzailea Pilar Pérez-Fuentes

Historialaria (EHUko Experiencia Moderna Taldea)

- **Mireia Ferri.** Arkitektoa eta ikertzailea
- **Sinecio Verdecia.** Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Poesiaren Etxeko zuzendaria
- **Ariana Larrondo AKA Emilia.** Soziologoa eta aktibista. Hija del Nopal DJ proiektua lantzen du eta QuitaPenas Kolektibo Elkartearen kofundatzailea da
- **Nerea Díaz.** Espacio Open kulturgunearen sortzaile eta zuzendaria

Aniztasunak eraikitzen du hiria, eta, berez, ez dago askotarikoa ez den hiririk. Hala ere, **gizarte- eta kultura-hierarkien** bidez egiten da hori, eta **hierarkia horiek oso agerikoak dira, exotismo- eta folklorizazio-irizpi-de sotilekin azaleratzen baitira, bestetasuna ukatuz.** Nola egiten diozue aurre kultura-integrazioaren erronkari? Horixe da **Pilar Pérez-Fuentes** EHUko historialariak mahai-inguruan parte hartzen duten pertsonen egin dien lehen galdera. Askotariko pertsonak dira, lan- eta bizi-ibilbide oso desberdinetakoak. Espacio Open kultura-zentroaren sortzaile eta zuzendaria da **Nerea Díaz**. Gizarte-eragin positiboko sorkuntza- eta gizarte-proiektuen ekosistema bat da zentroa, 2009az geroztik Bilboko antzinako galleta-fabrika kokatuta dagoena, Zorrotzaurreko Artiach fabrika, hain zuzen. Auzo hori hirigintza-eraldaketako eta -berronertzeko prozesuan murgilduta dagoen uhartea da gaur egun. Uhartean hainbat lagun bizi dira kalean, eta azken urteotan bizikidetzatza zaila bihurtu dela onartu du Nereak. «Uhartean gauden erakundeok publikoa izan beharko litzatekeen lana or-



Nerea Díaz, Emilia Larrondo, Sinecio Verdecia, Mireia Ferri eta Pilar Pérez-Fuentes, kulturari buruzko solasaldian.

dezkatu dugu; izan ere, gure espazioetan aukera batzuk ematen dizkiogu biztanleria horren zati bati, hala nola mugikorra kargatzea eta kafe bero bat hartzea. Erakunde bakoitzak egin dezakeen lana egiten du, eta horrek funtzionatu egin du». Galdera argia da: Nolako ingurunea eraiki nahi dugu? Izan ere, hiriaren eraikuntza hirian bizi garenok erabakitzen dugu.

Ariana Larrondo (AKA Emilia) soziologo, melomano eta aktibista da. Quitapenas kultura-elkartearen eta Hijas del Nopal proiektuaren bul-tzatzailea da. Proiektu horretan, musika tropikala erresistentzia-ariketa bihurtzen da, eta gozamenerako eta topaketarako espazioak irekitzen ditu. Bera ere emakume migratua izatearen eta Munduko Emakumeak⁵ elkartean parte hartzearen ibilbidean oinarrituta, **emakume migratuaren lehen zeregina existitzea** dela dio. Bai maila materialean —mugatzan eta hertsatzen duen Atzeritarren Legearekin— bai maila sinbolikoan —Abya Yalako emakumeek bigarren mailako bestetasuna osatzen dute hemen—. «Oso gogorra eta mingarria da bestetasun bat izatea balioesten ez zaituen espazio batean», aitortu du. Esperientzia horretan oinarrituta, musika eta dantza proposatzen dizkigu Emiliak; hau da, energia, gorpuztasuna, oroitzapena eta oroimena. Arrazakeriaren aurkako cumbia-lantegietan Selena⁶ erreibindikatzan du, lurraldez gaindiko abeslari bat, gaur egun Mexi-

5 Bizkaian bizi diren askotariko emakumeen elkarte, askotariko kultura eta kontinenteetatik datozen feminista internazionalistek osatua. Ikusi: <https://mujeresdelmundobabel.org/>

6 Selena Quintanilla kantaria Texasen jaio zen, baina jatorri mexikarra zuen. Texaseko musikaren paradigmatik aldatu zituen, eta industria musikalerako bidea ireki zien emakume latinoei. Tek-nocumbia deritzona sustatu zuen lehen emakumea izan zen, eta musika latino eta texastarra ezagun egin zituen nazioarteko merkatuan. Selena Quintanillak 70 milioi disko baino gehiago saldu zituen mundu zabalean; horrenbestez, tex-mex deritzonaren erregina 90eko hamarkadako artistarik garrantzitsuenetako bat izan zen.





Emilia Larrondo, Sinecio Verdecia eta Mireia Ferri, kulturari buruzko solasaldian.

koren eta Estatu Batuen arteko mugaldeko eta mugaz haraindiko hainbat talde feministak ere erreibindikatzen dutena.

Sinecio Verdecia Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Poesiaren Etxeko zuzendaria da. Berak kontatzen duenez, poesiarekin hasi eta gero musika aurkituz joan zen. Ibilbide horretan oinarrituta, «Corazón limpio» poema oparitu digu, kalimba⁷ batekin interpretatuta. Historialariaren Bulegoan, **bide antropologikoki bizia** sortu dute, hiri-tribuen joan-etorrien eta mugikortasunen bidez, dinamika libertarioen bidez eta beste hiri asko ezkututzen dituen hiri batean konkistatzeko dauden espazioen bidez. Zuzien martxaren berri ematen digu. Hiriko leku batzuetan zehar egiten den ibilbide fisikoa da, aldi berean oroimenaren ibilbide kolektiboa ere badena. Egintza puru, garbi, demokratiko eta herritarra da, eta gertaera hau oroitarazten du: 1871ko azaroan, zortzi medikuntza-ikaskle fusilatu zituzten, espainiar kazetari baten hilobia profanatzeari bidegabeki leporatuta⁸.

Nola hartzen ditugu besteak hirietan? Nola integratzen ditugu? Hiri integratzaileak gara? Galdera horiek egin dizkigu **Mireia Ferrik**. Arkitekto eta ikertzailea denez, badaki desberdintasuna oso agerikoa dela hirien eraikuntzan. Integrazioaren kontzeptuak zalantzak sorrarazten dizkionez, abegikortasunarena proposatu digu. Eta Marina Garcés filosofo katalanak landutako **abegikortasunaren** ideari heldu dio:

7 *Kalimba* —sanza, mbira edo mambira ere deitzen zaio—Afrikan asmatu eta hedatutako musika-tresna da, soinu goxoa duena.

8 Alejandro Gil zinemagilearen «Inocencia» filmak (2018) jasotzen du istorio hori.

Geure burua abegikortasunetik pentsatzeak bizi garen mundua egituratzen duten mugak eta distantziak erakusten dizkigu. Gure ohiko zirkuituetatik irteten ez garen bitartean, bizitza gurekin partekatzen duten pertsonekin (senideak, lagunak, lankideak...) libreki topo egiten dugula pentsatzen dugu. Baina zirkuitu horietako bakoitzaren kanalak oso itxiak eta estuak dira. Apur bat mugitzen bagara —dela arrazoi ekonomikoengatik (migrazioak), politikoengatik (erbeste-ratzeak) edo pertsonalengatik (osasun-arazoak edo haustura afektiboak)—, gizarte irekiak mundu itxiz eginda daudela konturatuko gara. Etengabeko muga-eremua dira, estatuko mugetatik hasita muga intimoenetaraino.

Bestea nola hartu galdetzea ez da galdera abstraktua, ezta bestetasunaren esperientziari buruzko espekulazioa ere. Aitzitik, geure buruari muga horiei buruz galdetzeraz eta haien aurka borrokatzeraz behartzen gaitu. Halaber, horrek esan nahi du geure buruaren aurka eta gure ustez garenaren aurka borrokatu behar dugula. Arrotza hartzea geure burua arrotz gisa hartzen ikastea da⁹.

«Abegikortasuna zeharkatzen zaituen eta bestetasunera irekitzen zaituen esperientzia da» diosku Mireiak, hiritik landa-eremura lekualdatu zeneko mahaikidetasunaren esperientzia —janaria elkarrekin prestatzea eta elkarrekin jatea— gogoratzean.

Hain zuzen ere, ideia horretan oinarrituta, hau galdetu digu Pilarrek: **Nola eraiki ditzakegu kulturarteko topaketarako espazioak?** Nola erraztu ditzakegu? Nereak Memoriaren Horma proiektuaz hitz egin digu. Ekimen horrek fabrikazio digitaleko teknologiak erabiltzen ditu tokiko nortasunaren garrantzia azpimarratzeko. Proiektuaren bidez, Deustuko Erribera auzoari lotutako pertsonen bustoak eskaneatu eta zeramikaz inprimatzen dira, jendeari irekitako erakusketa bat sortzeko. Hauek dira erakusketan ikusgai dauden pertsonak: auzo postindustrial horren eraldaketa bizi izan duten bizilagunak, Artiach galleta-fabrika enblematikoko langileak, beren proiektua uhartean garatu duten ekintzaileak, auzoko pabiloi industrietan bizitza-erdia eman duten langileak eta auzoaren historia biziaren parte diren beste asko.

Emiliak, bere aldetik, galdera hau egiten digu bertakooi, Euskal Herriko funtsezko sozializazio-guneetakoak diren jaiak kulturarteko gune bihurtzearen aurka dugun erresistentzia dela eta: Nola eta norentzat pentsatzen ditugu jaiak? Nola sortu bestelako musika- eta/edo kultura-eskaintzak? Berriz ere, musika proposatu digu, aniztasunaz, bizi izan ditugun

⁹ Universitat Oberta de Catalunya Arte eta Gizarte Zientzietako ikasketen blogetik hartutako testua.





eta bizi ditugun une historikoez, eta berreskuratu eta sustatu beharreko balio-eskalez hitz egiteko hari gidari gisa. Eta saltsa baten eta cumbia baten bidez egin du hori. Ismael Rivera soneroak kantatu zuen «Las caras lindas de mi gente negra» izenburuko saltsa, 70eko hamarkadan zehar. Tite Curet Alonso konpositoreak idatzitako kanta hori arraza-periferiako subjektuen borroken ikur bihurtu zen. Andrés Landero kolonbiarraren «Cuando lo negro sea bello» izenburuko cumbiak, berriz, kontzientzia hartzera eta diskriminazioaren eta injustiziaren aurkako altxamendura gonbidatzen gaitu.

Nola diseinatzen eta hartzen ditugu erabakiak adituen ahotsetik haratago, edo ez soilik haien ahotsarekin? Mireiak Paisaje Transversal bulegoarekin elkarlanean jarduten du, eta bitartekaritza-lana egiten du diseinuaren eta komunitateko ahots eta gorputzen artean. Kontsulta hutsetik haratago joatea da kontua, eta hori posible izan zen Iruñeko La Milagrosa auzoan, non imajinarioak jaso eta narratibak ehundu ahal izan zituzten 100 bat pertsonarekin. Kokatutako ezagutza jaso eta egituratzea da kontua.



Emilia Larrondo eta Sinecio Verdecia, kulturari buruzko solasaldian.

PROIEKZIOA:

“LA BANDA” (Málaga 17 min.)

Leo Jiménez en eta Deliz Márquezen film laburra.

Nomada digitalen bikote gazte batek bere ametsa bete du: teknologiako konpainia erraldoi batentzat telelana egitea, hegoaldeko hiri bero eta moderno batean itsasora begira dagoen luxuzko apartamentu batetik. Hala ere, hiria ezaguna egiten zaie, eta ez bakarrik gero eta antz handiagoa duelako gentrifikazioak eta abusuzko hirigintzak desitxuratutako gainerako hiriekin, baita arratsaldero soinu-banda berezia entzunarazten dielako ere.

Istorio honen bidez, hausnarketa bat sortu nahi dugu hauen arteko topaketak izan ditzakeen inplikazioei buruz: batetik, iritsi berri diren biztanleak —bere egoeraz harro eta ilusioz beteta dagoen bikotea—, eta bestetik, bizitza osoa hirian daramatenak —musika-banda, agian hiriaren bertsio berriarekin bat ez datorrena—.

Ikuspegi konprometitu eta esanguratsu batetik, komedia erabili nahi dugu gai serioei heltzeko eta gizarte-aldaketa sustatzeko tresna gisa.

Komediak, barrea eragiteaz gain, kontzientzia soziala ere inspiratu eta susta dezake.



La Banda film laburraren fotograma.





KASU PRAKTIKOA: “HABANAKO HIRIGUNE HISTORIKOARI APLIKATUTAKO KUDEAKETA-EREDUAREN GARAPEN INTEGRALAREN BOST ZUTABEAK. KULTURA ETA PARTE- HARTZEA ONDARE-HIRIAN”

Patricia Rodríguez

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Plan Maisuaren zuzendaria

Katia Cárdenas

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko kultura-kudeaketaren zuzendaria

Patricia Rodríguezek, Habanako Historialarien Bulegoko Plan Maisuaren zuzendariak, eta **Katia Cárdenasek**, Habanako Historialarien Bulegoko Kultura Ondarearen zuzendariak, erakusketa bat egin dute, 1994az geroztik Habanako hirigune historikoaren berroneratzea ezin hobeto bulztatu duen kudeaketa-ereduari buruz. **Eredu horrek pertsona jartzen du prozesu guztiaren erdigunean, kultura-patroien sortzaile, eramaile eta transmisore den aldetik.** Habana Hiriko Historialariaren Bulegoak eredu hori aplikatzen du harrezkeroztik. Erakundea 1938an sortu zen, eta aitzindaria da ondare ukigarria eta ukiezina zaintzen eta babesten.

Patriciak azaldu duenez, ereduak 5 zutabe nagusi ditu:



Patricia Rodríguez eta Katia Cárdenas, Habanako (Kuba) hirigune historikoaren kultura-kudeaketaren ereduari buruzko hitzaldian.

- Erakunde-jasangarritasuna. Iraunkortasuna bermatzen du.
- Gizarte-jasangarritasuna. Justizia bermatzen du.
- Ekonomia-jasangarritasuna. Arrazionaltasuna bermatzen du.
- Ingurumen-jasangarritasuna. Oreka bermatzen du.
- Kultura-jasangarritasuna. Benetakotasuna bermatzen du.

Jasangarritasunaz gain, beste ezaugarri hauek ditu ere: duak:

- Hirigune historikoa zaindu eta haren balioa nabarmentzea, eraikin historikoak zaharberritzeari, espazio publikoak birgaitzeari eta hirigune historikoaren kultura-aharastasuna sustatzeari lehentasuna emanaz.
- Garapen sozioekonomikoa: enplegua sortzea, biztanleen bizi-baldintzak hobetzea eta eremuaren ekonomia suspertzeko inbertsioak erakartzea.
- Hiritarrek parte hartzea, tokiko komunitatea birgaitu eta garatzeko prozesuan inplikaturik, biztanleak proiektuko partaide senti daitezzen eta emaitzei onura ateratzea diezaizuten.
- Ondarearen kudeaketa, inbertsioa eta eragileen parte-hartzea erraztuko dituen lege- edo zuzenbide-esparrua.

«Ez dugu zaharberritze-plan bat planteatu —zehaztu du Paulak—, baizik eta **eremu osorako garapen-plan integral bat, denboran iraunkorra den eta kulturari lotuta dagoen tokiko eredu sozioekonomikoa**». Plan horrek (Garapen Integraleko Plan Berezia) modu egituratuan lantzen ditu ondarearen kontserbazioa, garapen sozioekonomikoa eta biztanleen bizi-kalitatea.

Horrez gain, Plana bat dator NBERen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJHeikin). Plana hedatzeko eta gauzatzeko praktikan oinarrituta, Patriciak nabarmendu du beharrezkoa dela kulturari buruzko berriarazko GJH bat sortzea; izan ere, kultura ere garapenerako eragile garrantzitsua eta zentrala dela egiaztatzen dute haiek.

Katia Cárdenasek eremuko ondare historikoa eta kulturala babestu, zaharberritu eta zaintzeko egindako lan mardula eta erakargarria erakutsi digu, Habanako Historialarien Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik. Izan ere, lorpen hauetatik ari gara: 30 museo, 14 kultura-zentro, 9 museo-etxe, ondare dokumentaleko 7 zuzendariordetza, 4 kontzertu-areto, 3 antzerki-areto, 2 galeria, 2 ikerketa-kabinete eta antzoki bat. Leku horietako asko komunitatetik finkatutako espazioak dira, eta denboraren joanarekin espazio publikoak eta komunitatearekiko elkarbizketa suspertzeko eragin dute.





KASU PRAKTIKOA: “SAINT LOUIS HIRIA ETA HAREN JASANGARRITASUNA, UNESCOREN ESTANDARREKIN BAT”

Fatou Diop

GESTES - Gereno Laborategiko koordinatzailea eta Défando elkarteko presidentea

Abdoul Sow

Senegaleko Ikasketa eta Dokumentazio Zentroko irakaslea eta zuzendaria

Habana hiri ederretik beste hiri eder batera eraman gaituzte **Fatou Diop-ek eta Abdoul Sow-ek**. Beste hiri horrek ere garrantzi handiko iragan koloniala du, baina beste kontinente batean dago: Afrikan. *Sindone* da, senegaldarren hizkeran¹⁰, edo Saint Louis, frantsesek 1659an jarritako ize-nean. Hiria Frantziako postu komertziala izan zen, berebiziko garrantzia izan zuena, baita Senegal eta Mauritania barne hartzen zituen protektoratu frantseseko hiriburua ere, harik eta 1960an bi herrialdeek independenztzia lortu zuten arte. Harrezkero, zentraltasun ekonomikoa galdu zuen, eta Dakarrek eskuratu zuen. Sain Louisen iragan koloniala agerikoa da uharteko historiaz betetako eraikin eta kaleetan. Ereduak bi kilometro-



Fatou Diop eta Abdoul Sow, Saint Louis (Senegal) hiriari buruzko hitzaldian.

¹⁰ Woloferaz, *Ndar* esaten zaio.

ko luzera eta 400 metroko zabalera ditu Senegal ibaiaren bokalean, hiri-ko erdigune historikoan. Ozeano aldera, hareazko mihi luze batek Ndar Tout eta Guet Ndar arrantzale-auzoak hartzen ditu; 45.000 pertsona baino gehiago bizi dira bertan. Hiria herena kontinentean dago. Saint Louis uhartea Gizateriaren Ondarearen errepertorioan sailkatu zuen Unescok 2000. urtean.

Zer ezaugarri ditu hiriak? Zalantzarik gabe, ondare guztiz garrantzitsua dela azaldu du Fatouk. Hala ere, arazo hauek ditu: herentzia kolonial hauskorra, eremu degradatuak, itsasertzaren higadura handia, presio demografiko indartsua eta hirigunearen hedapen nabarmena. Horrez gain, desparekotasun handiak daude baliabideak eta enplegua eskuratzeko aukerei dagokienez. Testuinguru horretan, Fatouk eta Genero Laborategiko lantaldeak (GESTES) ahaleginak egiten dituzte ikerketek eta proiektuek **genero-ikuspegia kontuan har dezaten eta bazterkeria-egoera handien dauden emakume-taldeekin lan egin dezaten.**

Alderdi teknikoago batetik, Abdoulek, Senegalgo Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko irakasle eta zuzendariak, Saint Louiseko kontserbazio- eta balorizazio-plana aurkeztu digu. Ondarea kudeatzeko funtsezko tresna da, hiriak erronka handiei aurre egin behar baitie, ikusi dugunez. Plana landu eta ezarri zenetik 17 urte igaro dira, eta gaur egun badira hura hobetzea eskatzen duten arazoak. Hala, aurretik Europako hiriei buruz aipatu dugun fenomeno bat jasaten du Saint Louisek bere hirigune historikoan: gentrifikazioa. Paralelismo horrek fenomeno global bat adierazten du, iparralde eta hegoalde globaletako hirien arteko alde nabarmenak bazter utzita: **sistema kapitalistaren metaketa-logikei erantzuten dien gentrifikazioa**, hain zuzen.





ONDORIOAK

Kontua ez da hiriaz hitz egitea, hirian bizitzea baizik.

Xabier Aierdi

Nora doaz gure hiriak? Zer lekutan bizi nahi dugu? Zer izan nahi dugu? Egunotan, aditu batzuen ondoan ibili gara hainbat hiri eta kaletan zehar. Horietan guztietan, distantziak alde batera utzita, antzeko kezka aurkitu ditugu: klima-aldaketa, biztanleria zahartzea, turismoari lotutako logika oldarkorra, gentrifikazioa eta abar.

Zenbat hirik egin dute kirolari, musikari edo kulturari lotutako ekitaldi handien aldeko apustua? Ekitaldiok garapenerako eragile gisa aurkezten dira, baina, kasu askotan, kontrako eragina dute: tokiko kultura irenstea, auzoetako bizimodua garestitzea, turismo masifikatzailea eta baztertzaila erakartzea, eta gentrifikazio-prozesuak eta auzo-desplazamendukoak bizkortzea.

Erakusleihoaren eta kontsumoaren logika horren aurrean, premiazkoa da **ereduak birpentsatzea eta guztiona, eguneroko bizitza eta hiri egokia izateko eskubidea aintzat hartzen dituztenak lehenestea**, kultura sortzen duten eta hirietan bizi diren pertsona guztientzat.

Askotariko hiriak ikusi ditugu: iparralde globaleko hiri aberats eta pribilegiatuak, etxebizitzaren arazo nagusiari aurre egin behar diotenak; hegoalde globaleko hiriak, ondare kolonial oso ederraren oinordekoak izanik ere desagertu ez diren logika kolonialistak ere jaso dituztenak; Gazan erabat suntsituta dauden eta berriro eraiki beharko diren hiriak, eta abar.

Egungo testuinguruan... **Maitemindu ote gaitezke berriro munduaz?** Irten ote gaitezke sare sozialek kondanatzen gaituzten bakardadetik eta itzuli presentzialtasunera, gorputzera, kontaktura eta trukera, desberdina dena hartu ahal izateko eta topaketa horretatik zerbeit berria sortzeko?

«**Ikus dezagun elkar kaleetan**», proposatzen digu Juan Carlos Vázquezek. «**Bizi gaitezen horietan**».



Kubako, Senegaleko, euskal erakundeetako eta KCD GGKEko parte-hartzaileen arteko topaketa.

PERFORMANCEA

Emaus Gizarte Fundazioak «Casas de cartón – construyendo ciudades habitables» izenburuko performancea aurkeztu du.

Hiri handi bat kolektiboki muntatzera eta bizitzeko zer komunitate-mota eraiki nahi dugun pentsatzera gonbidatzen gaitu performance horrek. Eta kartoizko kutxen bidez egiten du, hauskorrek baina erresistenteak diren elementuen bidez, alegia.

Izan ere, eusteko beharra da hiriko bazterretan bakarrik eta erbesteratuta bizi diren pertsona ikusezin askoren bizitzaren ezaugarrietako bat. Eta erresistentzia horretatik etxebizitza duina izateko eskubidea eskatzen eta aldarrikatzen dute, baina eskubide hori urratu egiten zaie, etxebizitza publikorik ez dagoelako, abusuzko alokairuak eskatzen direlako, eta jarrera xenofobo eta arrazistak zein aporofobia-giroa nagusi direlako.



Topaketan parte hartu dutenek Emaús Gizarte Fundazioak egindako kartoi-kutxekin eraikitako hiriaren irudia.





HIZLARIAK



ENKARNI GÓMEZ

(Euskadi)

EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko irakaslea. Architectural and Urban Contemporary Heritage-ren (ARURCOHEren) Arkitektura eta Hiri Ondareari buruzko Erasmus Mundus Masterraren koordinatzailea



KOLDO TELLERÍA

(Euskadi)


EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko irakaslea. Hirigintza-arloa. Partaidetzazko hirigintzan eta generoan aditua



SARA ORTIZ

(Bartzelona)

Col·lectiu Punt 6 kooperatibaren bazkide sortzailea



JOSE MANSILLA

(Bartzelona)

Universitat Autònoma de Barcelona (UAB) unibertsitateko hiri-antropologoa eta irakaslea



ERITZ MENDIZABAL

(Bilbo)

Soziologoa, eta Bihotzean (Alde Zaharreko Auzo Elkarte) eta SOS Alde Zaharra elkarteetako kidea



IRAIDE FERNÁNDEZ

(Euskal Herria)

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea



IKER EIZAGIRRE

(Irun)

Hiritik At Koop kooperatibako bazkide langilea



MAMADOU DIA

(Senegal)

Hahatay Son Risas de Gandiol elkartearen sortzailea



PILAR PÉREZ-FUENTES

(Euskadi)

Historialaria (EHUko Experiencia Moderna Taldea)



MIREIA FERRI

(Balentzia)

Arkitektoa eta ikertzailea



SINECIO VERDECIA

(Kuba)

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Poesiaren Etxeko zuzendaria



ARIANA LARRONDO

AKA EMILIA

(Abya Yala)

Soziologoa, musikazalea eta aktibista, Quitapenas Colectiva Kultur Elkartearen sortzailekidea



PATRICIA RODRÍGUEZ

(Kuba)

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Plan
Maisuaren zuzendaria



KATIA CÁRDENAS

(Kuba)

Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko
kultura-kudeaketaren zuzendaria



FATOU DIOP

(Senegal)

GESTES - Gereno Laborategiko koordinatzailea
eta Défando elkarteko presidentea



ABDOUL SOW

(Senegal)

Senegaleko Ikasketa eta Dokumentazio
Zentroko irakaslea eta zuzendaria



NEREA DÍAZ

(Bilbo)

Espacio Open kulturgunearen sortzaile eta
zuzendaria








Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

48902 - Barakaldo - Bizkaia

94 602 46 68

info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org



CINE
INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2025 BILBAO



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bilbao



Bizkaia
fora aldundia
diputación foral



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



(H)ABIAN
EGIAKITE DIBULGATIBAKO
HABEREN BERRIKUNTZA ERORTZEN
ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN
ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN
ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN ERORTZEN



EHU
Euskal Herria Unibertsitatea
Universidad del País Vasco